

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

Eibarko udalerrian hiri-hondakinak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren 2025eko ekitaldiko aldaketa behin betiko onartzea.

Jendaurrean jartzeko epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Batzar Orokorrak 2025eko martxoaren 26an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki hori Eibarko udalerrian hiri-hondakinen zerbitzua emateagatik 2025eko ekitaldiko tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena emateari buruzkoa zen. Beraz, aldaketa-erabaki hori behin betikoa da.

Hona hemen ordenantzaren aldaketa onartua:

Xedapen iragankorra.

Etxeko sektorean, biohondakinen edukiontzia erabileren zenbaketa, tasa justurako eskubidea emango duena, 2025eko uztailaren 1ean sartuko da indarrean, eta 2025eko lehen bi hiruhilekoetan izango du sortzapena. Halaber, egun horretatik aurrera, aldatu egingo da kontrol hori eraginkorra izango den 6 hilabeteetatik 4ko epean zenbatzea.

Eibar, 2025eko ekainaren 12a.—Ion Zubiaurre Ros, presidentea. (4459)

MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por la prestación del servicio público de recogida de R.U. en el municipio de Eibar, ejercicio 2025.

Transcurrido el plazo de información pública, no se ha presentado alegación alguna al acuerdo adoptado por la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2025, sobre aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por la prestación del servicio de R.U. en el municipio de Eibar, ejercicio 2025, por lo que dicho acuerdo de modificación, adquiere la condición de definitivo.

La modificación aprobada de la ordenanza, es la siguiente:

Disposición transitoria.

El cómputo de usos del contenedor de biorresiduos, en el sector domiciliario, que dará derecho a la tasa justa, entrará en vigor el día 1 de julio de 2025, manteniéndose su devengo durante los dos primeros trimestres del año 2025. Se modifica, asimismo, a partir de dicha fecha, su cómputo en un periodo de 4 de los 6 meses en los que se va a ser efectivo dicho control.

Eibar, a 12 de junio de 2025.—El presidente, Ion Zubiaurre Ros. (4459)